2024/01/25ean EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURA.

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día 25/01/2024.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Edorta Barandiaran García
Xabier Uriarte Iñurrategi
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Maite Uribe Beristain
Antonio Regaño Sajeras
Puri Regidor Varela
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

MARIA PILAR BELATEGUI IZURRATEGUI

Eskoriatzan, 2024ko urtarrilaren 25ean, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Ohiko Osoko bilkura, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 25 de enero de 2024, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día.

**1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.**

2023/12/21ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

**2.- ALKATEAREN JAKINARAZPENAK.**

2024ko urtarrilaren 17ra arte hartutako erabakien berri eman da.

**3.- KREDITUAK ALDATZEKO 1/2024 ESPEDIENTEA (kreditu transferentzia).**

Udal honetako aurrekontuan eragina duen kredituak aldatzeko 1/2024 espedientearen berri eman da. Kreditu aldaketa aurrekontuetako gastu partiden arteko kreditu transferentzia bidez egingo da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, non adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarri zaion araudiari egokitzen zaiola, hain zuzen ere, Toki Erakundeen Aurrekontu erregelamendua onartzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 28. a) eta 29. artikuluetan ezarritako betebeharrei.

Era berean, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Aztertu eta bototara jarrita, EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 1/2024 espedientea onartzea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

**Kredituak transferituko dituzten gastu partidak (bajak)**

| Partida | Izena | Hasierako kreditua | Murrizketa | Amaierako kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.221.342.20.03 2024 | GASA:KIROLDEGIA | 211.379,12 | 37.800,00 | 173.579,12 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | **211.379,12** | **37.800,00** | **173.579,12** |

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

| Partida (*) | Izena | Hasierako | Gehikuntza | Amaierako |
|---|---|---|---|---|

| | | kreditua | | kreditua |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.227.171.00.15 2024 | KONTRATUA:PARKE LORATEGIEN MANTENIMENDUA | 123.652,56 | 37.800,00 | 161.452,56 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | **123.652,56** | **37.800,00** | **161.452,56** |

* Aurrekontuko partida berriak sortu ahal izango dira

| **Partida** | **Izena** | **Hasierako kreditua** | **Murrizketa** | **Amaierako kreditua** |
|---|---|---|---|---|
| 1 0600.421.335.10.01 2023 | EKARPENA: LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA | 69.545,17 | 1.000,00 | 68.545,17 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | **69.545,17** | **1.000,00** | **68.545,17** |

* Aurrekontu partida berriak sortu ahal izango dira.

**Bigarrena.-** Egintza hau irmoa eta exekutiboa izanik, Fondoak Interbenitzeko Zerbitzuak, bestelako tramite barik eta berehalako eraginarekin, kontabilitatean adieraziko du onartutako kreditu aldaketa.

**4.- IDAZKARITZA-KONTUHARTZAILETZAK JARRITAKO ERAGOZPENAK (2023ko iraila-abendua).**

Udal honetako Idazkaritza-kontuhartzailetzak legezkotasun hainbat eragozpen jarri dizkienez Alkatetzak 2023ko irailaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra arte hartutako erabakiei, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen Testu Bateratua onesten duen martxoaren 5eko 2/204 Legegintzako Errege Dekretuko 218. artikuluan ezarritakoaren arabera, txostena aurkezten zaio Udalbatzarrari eragozpen horien aurka hartutako erabakien berri emateko.

Ondoren labur azaltzen dira Udalbatzarrak izandako erabakien eta eragozpenen berri:

*7. ERAGOZPENA: SARE SOZIALAK; PARTE HARTZE PLANA: ez dago fakturarik (25,28 €)*
*8. ERAGOZPENA: Gabonetako programa buzoneatzea. Ez dago fakturarik (140,00 €).*
*9. ERAGOZPENA: Gabonetako parkerako begiraleak. Ez dago fakturarik (1.560,00 €).*

*ERAGOZPENAK DIRULAGUNTZEI:*

- *Pauso Berriak programarako Jose Arana Patronatuko Fundazioari emandako dirulaguntza.*
- *Ikasturteko jarduueretarako KOLDOTXO GURASO ELKARTEARI emandako dirulaguntza.*
- *Ikasturteko jarduueretarako LUIS EZEIZA HERRI ESKOLARI emandako dirulaguntza.*
- *MUSIKA ESKOLARI emandako dirulaguntza.*
- *FERIXA antolatzeko Arizmendi Koop. Elkarteari emandako dirulaguntza.*
- *Atxorrotx egunerako San Pedro/Intxaurtxueta auzo elkarteari emandako dirulaguntza.*
- *Landa auzoei jarduera sozio-kulturalak edota ekonomikoak antolatzeko emandako dirulaguntzak: Basauri Elkarteari (Mazmela), Bolibar Ugazu Auzokideen Elkarteari eta Txarrue Elkarteari (Apotzaga).*

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 11 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

**5.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA ESLEITZEKO LIZITAZIOA ESLEITU GABE UZTEA.**

Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) emateko kontratua berriro esleitzeko izapidetutako administrazio-espedientearen berri eman da.

Udalbatzarraren 2023ko urriaren 26ko erabakiz, Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak) prozedura ireki bidez, aurretiaz izapidetuta eta hainbat esleipen irizpideren arabera kontratatzeko espedientea onartu zen. Kontratuari kalkulatutako balioa 230.101,26 euro urteko zen (BEZa barne).

Prozedura irekia zenez, eta SPKLren 156. artikuluaren arabera, lizitazioa Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen, eta proposamenak aurkezteko epea 2023ko azaroaren 22ko 24:00etan amaitu zen.

Ezarritako epearen barruan, enpresa bakarrak aurkeztu zuen eskaintza: SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO S.L.-k.

Kontratazio Mahaiak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO S.L. enpresari kontratua esleitzeko proposamena egitea, ondoren adierazten diren prezioetan eta Administrazio Klausula Berezien Agirian ezarritako gainerako baldintzei eta kontratistaren proposamenean jasotako zehaztapenei lotuta.

Prezioak:

Derrigorrezko zerbitzuak: 206.103,87 euro gehi BEZari dagozkion 20.610,39 euro.
Aukerako zerbitzuak: 90 euro gehi BEZari dagozkion 9 euro.

Kontratazio Mahaiak erabaki zuen ere puntuazio onena lortu zuen enpresari errekerimendua egitea jakinarazpena bidali zitzaionetik 10 egun baliodunko epean behin betiko bermea eratu izana justifikatzeko dokumentua eta baldintza administratiboen agiriko 22. baldintzan adierazitako gainerako dokumentazioa aurkeztu zitzan.

SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO SL enpresak 2023ko abenduaren 21ean jaso zuen errekerimendua. Eskatutako dokumentazioa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 8an amaitzen zen.

2024ko urtarrilaren 3an, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO SL enpresak bilera bat egiteko eta dokumentazioa aurkezteko emandako epea eteteko eskatu zuen. Horretarako, Bide Garbiketa Publikoaren eta Gipuzkoako Hiri Hondakin Solidoen Bilketaren hitzarmen kolektibo berriak (2023ko abenduan negoziatu zenak) dakarren soldata-igoerarekin sortutako egoera alegatu zuen.

Eskatutako bilera eginda, eta planteatutako gai ekonomikoak aztertuta, 2024ko urtarrilaren 11n SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO S.L. enpresak idazki bat aurkeztu zuen lizitazioa bertan behera uzteko eskatuz, eta, beraz, sozietatea eskatutako dokumentazioa aurkeztetik salbuetsita uzteko eskatuz.

Aurreko idazkiaren edukitik argi eta garbi ondorioztatzen da SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO S.L. enpresak, enpresa lizitatzaile bakarrak, eskaintza erretiratu duela.

Erabaki honen xedea ez bada ere eskaintza erretiratzea justifikatzeko alegatzen diren gaiak onargarriak diren ala ez erabakitzea, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ADAPTAMIENTO SL enpresari adierazi behar zaio ez dagokiola hirugarrenei, hau da, Udal honi, egozterik "aurkeztu zuten eskaintzaren balorazio-kalkuluetan egindako akatsa", are gehiago bere jarduera kontraesankorra kontuan hartuta: aurkeztutako eskaintza ekonomikoa lizitazio-prezioa baino txikiagoa da.

Nolanahi ere, kontraesaneko espediente bat izapidetu ahal izango da, baldintza agirietan eta SPKLren 150.2 artikuluan oinarrituta, zehazteko SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L. enpresak bete duen edo ez eskatutako dokumentazioa eta bermea aurkezteko eta kontratua formalizatzeko betebeharra. Lizitatzaile gehiago ez egoteak eragotzi egiten du hasitako lizitazio-prozedurarekin jarraitzea eta, beraz, kontratua esleitzea.

SPKLren 150.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, ezin izango da lizitazio bat esleitu gabe utzi baldintza-agirian agertzen diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat dagoenean. Xedapen hori kontrako zentzuan interpretatuta, eskaintza edo proposamen onargarri gehiago ez dagoenean lizitazioa esleitu gabe geratu ahal izango dela ondoriozta daiteke.

Aurrez esandako guztiarengatik, Lurraldea eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Esleitu gabe uztea Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua (derrigorrezko zerbitzuak eta aukerako zerbitzuak), prozedura ireki arruntaren bidez izapidetutakoa, enpresa lizitatzaile bakarrak, esleipendun gisa proposatua izan eta bermea eta kontratua esleitzeko nahitaezko gainerako dokumentazioa aurkezteko eskatu ondoren, bere eskaintza erretiratu duelako. Lizitazio horren espedientea Eskoriatzako Udalaren Osoko Bilkurak onartu zuen 2023ko urriaren 26an egindako bilkuran.

**Bigarrena.-** Esleitu gabe uzteko erabakia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean argitaratzea.

**6.- KALEAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO INDARREAN DAGOEN KONTRATUA LUZATZEA SKPL-REN 29.4 ARTIKULUAREN BABESEAN.**

2019ko urtarrilaren 11n formalizatutako administrazio-kontratuaren arabera, PreZero España SAUk kaleak garbitzeko zerbitzua ematen du Eskoriatzan.

Kontratu horren indarraldia 2024ko otsailaren 29an amaituko da.

Udalbatzarrak 2023ko urriaren 26an hartutako erabakiz, kontratu berria kontratatzeko espedientea onartu zen, eta lizitazio-iragarkia 2023ko urriaren 27an argitaratu zen

Gaur, Udalbatzar honek erabaki du Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua esleitzeko lizitazioa esleitu gabe uztea enpresa lizitatzaile bakarrak bere eskaintza erretiratu duelako. Lizitazio espedientea Udalbatzarrak onartu zuen 2023ko urriaren 26an egindako bilkuran.

Kontuan hartu beharrekoak:

1.- Egiaztatu da kontratu berriaren lizitazio-iragarkia argitaratu zela kontratua, zeinaren bidez PreZero España SAU zerbitzuak ematen ari den, amaitu baino gutxienez hiru hilabete lehenago.

2.- Azken kontratu hori amaitzean, kontratu berria ez da formalizatuta egongo aurreikusi ezin izan den gertakari baten ondorioz (enpresa lizitatzaile bakarrak kontratu berrirako eskaintza erretiratzea); eta kaleak garbitzeko zerbitzua, administrazio honek nahitaez eman behar duen zerbitzua den aldetik, ezin da eten.

3.- SPKLren 29.4 artikuluan jasotako baldintza guztiak betetzen dira.

Aurreko guztiagatik, eta kaleak garbitzeko zerbitzua emateko indarrean dagoen kontratua arautzen duten administrazio baldintzen agiriko 3. baldintzan eta SPKLren 29.4 artikuluan ezarritakoaren babesean, eta Lurraldea eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Eskoriatzako kaleak garbitzeko zerbitzua emateko administrazio kontratuaren indarraldia luzatzea administrazio-kontratu berriaren lizitazioa amaitu arte, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 29.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Bigarrena.-** Dagokion gastua baimendu eta erabilgarri jartzea 0100.227.163.00.01 aurrekontu aplikazioaren kargura.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau PreZero España SAU enpresa kontratistari jakinaraztea.

**7.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA.**

Udalbatzarrak, 2020ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKALAK GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren adieraziko diren prezioetan eta baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunen menpe.

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA zen 2020ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beraz, 2021eko martxoaren 24ra arte zuen indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko da.

Udalbatzarrak, 2021eko otsailaren 23an, URTEBETEZ luzatu zuen HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitutako kontratua. (1. luzapena)

2022ko otsailaren 22an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (2. luzapena).

2022ko azaroaren 22an beste URTEBETEZ luzatu zuen kontratua Udalbatzarrak (3. luzapena).

2023ko martxoaren 28an, Udalbatzarrak erabaki zuen proposatutako baldintzetan aldatzea HEMEN GARBIKETAK enpresari HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEKO 2020ko otsailaren 25ean esleitutako kontratua, urtean 31.612,58 euroko kostu gehigarriarekin (BEZa barne), hasieran aurreikusitako 167.043,65 euroekiko (BEZa barne), hau da, % 18,92ko igoera.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena du 2020ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Orain, 2024ko urtarrilaren 11ko datarekin, Jose Antonio Ponferrada jaunak, HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, idazkia aurkeztu du Eskoriatzako Udaleko Garbiketa Zerbitzu Orokorren kontratua 2024ko martxoaren 24tik aurrera URTEBETEZ luza dadin eskatzeko.

Eskaera aztertuta, komenigarritzat jo da kontratua luzatzea esandako eperako.

Udala zerbitzuarekin ados egonda, egokitzat jotzen da kontratua beste URTEBETEZ luzatzea.

Lurraldea eta Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak egindako proposamenarekin bat etorriz, Udalbatzarrak, EH BILDUko 7 zinegotziek alde bozkatuta eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** HEMEN GARBIKETAK enpresari HAINBAT UDAL ERAIKIN GARBITZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEKO esleitutako kontratua URTEBETEZ luzatzea (4. luzapena) baldintza agiriaren hirugarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

eskoriatzako udala

## 8.- 2023-2027 AGINTALDIKO UDAL BATZORDETARAKO ETA BARNE ANTOLAKUNTZAKO LAN BILERETARAKO HIZKUNTZ IRIZPIDEAK.

Kultura, Euskara, Hezkuntza eta Gazteria batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** 2023-2027 agintaldiko udal batzordetarako eta barne antolakuntzako lan bileretarako hizkuntz irizpideak onartzea.

## 9.- GALDE-ESKEAK.

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:07an amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

ESKORIATZAKO UDALA
alkatetza
EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA
2024/02/2312:30:02

ESKORIATZAKO UDALA
idazkaritza
kontuhartzailetza
MARIA PILAR BELATEGUI IZURRATEGUI
2024/03/2511:21:35

## 1.- APROBACIÓN DE ACTA DE SESIÓN ANTERIOR.

Por encontrar conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada en fecha 21/12/2023 .

## 2.- COMUNICACIONES DE ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 17 de enero de 2024

## 3.- EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 1/2024 (transferencia de créditos)

Dada cuenta del Expediente de Modificación de Créditos Nº 1/2024, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este Ayuntamiento.

Se da lectura al Informe emitido por la Secretaria-Interventora quien manifiesta que dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por los arts. 28 a) y 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa, por el que se aprueba el Reglamento Presupuestario de las Entidades Locales.

Igualmente se da lectura al informe favorable y propuesta de aprobación formulada por la Comisión Informativa de Organización y Hacienda.

Tras la correspondiente deliberación y sometido a votación, con el voto favorable de los 7 concejales de EHBILDU y la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA

**Primero.-** Aprobar el expediente de Modificación de Créditos, nº 1/2024, mediante transferencia entre partidas presupuestarias de Gastos que se relacionan en la propuesta formulada al respecto, correspondiente al Presupuesto de este Ayuntamiento y conforme al siguiente resumen por Capítulos.

**Partidas de gasto que transferirán créditos (bajas)**

| Partida | Denominación | Crédito inicial | Reducción | Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.221.342.20.03 2024 | GAS:KIROLDEGIA | 211.379,12 | 37.800,00 | 173.579,12 |
| | | | | |
| **TOTAL** | | **211.379,12** | **37.800,00** | **173.579,12** |

**Partidas de gasto que recibirán créditos (altas)**

| Partida (*) | Denominación | Crédito inicial | Aumento | Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0100.227.171.00.15 2024 | CONTRATO: MANTENIMIENTO DE PARQUES Y JARDINES | 123.652,56 | 37.800,00 | 161.452,56 |
| | | | | |
| **TOTAL** | | **123.652,56** | **37.800,00** | **161.452,56** |

* Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias

| Partida | Denominación | Crédito inicial | Reducción | Crédito final |
|---|---|---|---|---|
| 1 0600.421.335.10.01 2023 | APORTACIÓN:LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA | 69.545,17 | 1.000,00 | 68.545,17 |
| | | | | |
| **TOTAL** | | **69.545,17** | **1.000,00** | **68.545,17** |

* Podrán crearse nuevas partidas presupuestarias.

**Segundo.-** Siendo este acto firme y ejecutivo sin necesidad de ulteriores trámites procede que por los Servicios de la Intervención de Fondos se refleje en la contabilidad la modificación de créditos aprobada con efectos inmediatos.

**4.-REPAROS INTERPUESTOS POR SECRETARIA-INTERVENCIÓN (setiembre- diciembre 2023)**

Dado que por la Secretaría-Intervención de este Ayuntamiento han sido efectuados una serie de Reparos de legalidad a Resoluciones y acuerdos adoptados por la Alcaldía desde el 1 de setiembre al 31 de diciembre de 2023, de conformidad con lo dispuesto en el art. 218 del RDL 2/204 de 5 de marzo, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, se eleva informe al Pleno para dar cuenta de la Resoluciones adoptadas contrarias a dichos reparos.

A continuación se hace una reseña de las resoluciones y los reparos de los que ha tomado cuenta el Pleno:

*REPARO Nº7: SARE SOZIALAK ; PARTE HARTZE PLANA: No hay factura ( 25, 28€)*
*REPARO Nº 8: Buzoneo- Programa Navidad. No hay factura (140,00 €)*
*REPARO Nº 9: Monitores parque Navidad. No hay factura ( 1.560,00 €)*

*REPAROS EN SUBVENCIONES:*

- *Para programa Pauso Berriak subvención concedida a Fundación Patronato José Arana*
- *Para actividades curso escolar subvención concedida a KOLDOTXO GURASO ELKARTEA*
- *Para actividades curso escolar subvención concedida a LUIS EZEZIA HERRI ESKOLA*
- *Subvención concedida MUSIKA ESKOLA*
- *Para FERIXA subvención concedida a Arizmendi Koop. Elk.*
- *Para Atxorrotx Eguna subvención concedida a San Pedro/Intxaurtxueta auzo elkartea*
- *Subvenciones concedidas a* barrios rurales para la organización de actividades socio-culturales y/o económicas: las concedidas a Basauri Elkartea (Mazmela); Bolibar Ugazu Auzokideen Elkartea, Txarrue Elkartea ( Apotzaga)

El Pleno, con la asistencia de 11 de los 11 concejales que legalmente lo componen, da por recibida dicha información.

**5.- DECLARACIÓN DE DESIERTA LA LICITACIÓN PARA LA ADJUDICACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA**

Se da cuenta del expediente administrativo tramitado para la nueva adjudicación del contrato de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales).

Mediante acuerdo de fecha 26 de octubre de 2023 del Pleno de la Corporación se acordó aprobar el expediente de contratación, mediante procedimiento abierto, tramitación anticipada, con varios criterios de adjudicación, de prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), con un valor estimado de 230.101,26 (IVA incluido) euros al año.

Al tratarse de un procedimiento abierto, y de acuerdo con lo indicado en el art. 156 de la LCSP, la licitación se publicó en el Perfil del Contratante, finalizando a las 24:00 horas del día 22 de noviembre de 2023 el plazo de presentación de proposiciones.

Dentro del plazo señalado, presentó oferta una única empresa: SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L.

En sesión de fecha 21 de diciembre de 2023, la Mesa de Contratación, por unanimidad de sus miembros, acordó proponer la adjudicación del contrato a la empresa SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL por los precios que a continuación se indicarán y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

Precio:

Servicios obligatorios: por un precio de 206.103,87 € más 20.610,39 €, correspondientes al IVA.
Servicios opcionales: Por un precio de 90 € más 9 € correspondientes al IVA

La Mesa de Contratación también acordó requerir a dicha empresa a que en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación, presentase el documento justificativo de la constitución de la garantía definitiva y demás documentación señalada en la cláusula 22 del Pliego de Condiciones Administrativas que rige la contratación.

La empresa SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL recibió el requerimiento el día 21 de diciembre de 2023. El plazo para presentar la documentación exigida finalizaba el 8 de enero de 2024.

Con fecha 3 de enero de 2024, SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL solicitó mantener una reunión y que se suspendiera el plazo concedido para entregar la documentación. Alegaba para ello la situación generada con el incremento salarial que conlleva el nuevo convenio colectivo de Limpieza Publica Viaria y Recogida de Residuos Sólidos Urbanos de Gipuzkoa negociado durante el mes de diciembre de 2023.

Mantenida la reunión solicitada, y tratadas las cuestiones de índole económico planteadas, con fecha 11 de enero de 2024 SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL presenta un escrito solicitando que se deje sin efecto la licitación y que se exima por tanto a la sociedad de aportar la documentación requerida.

Del contenido del anterior escrito se desprende claramente que SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL, única empresa licitadora, retira su oferta.

Si bien no es objeto de este acuerdo el determinar si las cuestiones que se alegan para justificar la retirada de la oferta son admisibles o no, cabe significar a SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO SL, que no procede imputar a terceros, esto es, a este Ayuntamiento, el *"error en los cálculos de valoración de la oferta que presentaron" y más teniendo en cuenta* su actuación contradictoria: la oferta económica presentada es inferior al precio de licitación.

Sin perjuicio de que se tramite un expediente contradictorio, con base en los pliegos y en el art. 150.2 de LCSP, para determinar el incumplimiento de SERVICIOS URBANOS DE LIMPIEZA Y ACONDICIONAMIENTO S.L de su obligación de presentar la documentación y garantía requeridas y formalizar el contrato; se da la circunstancia de que la falta de más licitadores impide que pueda proseguirse el procedimiento de licitación incoado y, en consecuencia, adjudicar el contrato.

De conformidad con lo indicado en el art. 150.3 de LCSP, no podrá declararse desierta una licitación cuando exista alguna oferta o proposición que sea admisible de acuerdo con los criterios que figuran en el pliego. Interpretada dicha disposición a contrario sensu, cabe concluir que cuando no exista más ofertas o proposiciones admisibles la licitación podrá declararse desierta.

Por cuanto antecede, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico Sostenible y con el voto favorable de los 7 concejales de EHBILDU y la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**Primero**: Declarar desierta la licitación, tramitada mediante procedimiento abierto ordinario, para la adjudicación de la prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza (servicios obligatorios y servicios opcionales), cuyo expediente fue aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión del día 26 de octubre de 2023, al haber retirado su oferta la única empresa licitadora tras haber sido propuesta como adjudicataria y haberle requerido a la presentación de la garantía y demás documentación obligatoria para la adjudicación del contrato.

**Segundo:** Ordenar que se publique la citada declaración en el Diario Oficial de la Unión Europea y en el Perfil del Contratante.

**6.- PRÓRROGA DEL CONTRATO VIGENTE PARA LA PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA VIARIA URBANA AL AMPARO DEL ART. 29.4 de LA LCSP.**

En virtud de contrato administrativo formalizado el 11 de enero de 2019, PreZero España SAU viene prestado el servicio de limpieza urbana en el término municipal de Eskoriatza.

La vigencia de dicho contrato finaliza el próximo 29 de febrero de 2024.

Mediante acuerdo de fecha 26 de octubre de 2023 del Pleno de la Corporación se acordó aprobar el expediente de contratación del nuevo contrato, produciéndose la publicación del anuncio de licitación el día 27 de octubre de 2023.

Con fecha de hoy esta Corporación ha acordado declarar desierta la licitación para la adjudicación de la prestación del servicio de limpieza viaria urbana en el municipio de Eskoriatza, cuyo expediente fue aprobado por el Ayuntamiento Pleno en sesión del día 26 de octubre de 2023, al haber retirado su oferta la única empresa licitadora.

Considerando que:

1.- Se ha constatado que el anuncio de licitación del nuevo contrato se ha publicado con una antelación mínima de tres meses respecto de la fecha de finalización del contrato en virtud del cual PreZero España SAU viene prestando sus servicios.

2.- Al vencimiento de este último contrato no estará formalizado el nuevo contrato por una incidencia resultante de un acontecimiento imprevisible (retirada de la oferta por la única empresa licitadora al nuevo contrato), así como que el servicio de limpieza viaria, como servicio que es de obligada prestación para esta administración, no puede ser objeto de interrupción.

3.- Concurren todos los requisitos del art. 29.4 de la LCSP

Por cuanto antecede, al amparo de lo previsto en la cláusula 3 del Pliego de Cláusulas Administrativas que rigen el contrato vigente de prestación del servicio de limpieza viaria y en el art. 29.4 de la LCSP; y de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico Sostenible; el Pleno, con el voto favorable de los 7 concejales de EHBILDU y la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV, ACUERDA:

**Primero:** Prorrogar el plazo de vigencia del contrato administrativo para la prestación del servicio de limpieza urbana del término municipal de Eskoriatza hasta que finalice la licitación

del nuevo contrato administrativo, de conformidad con lo dispuesto en el art. 29.4 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público.

**Segundo:** Autorizar y disponer el gasto correspondiente con cargo a la aplicación presupuestaria 0100.227.163.00.01

**Tercero:** Notificar la presente resolución a la empresa contratista PreZero España SAU

**7.-PRÓRROGA DEL CONTRATO DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS PÚBLICOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA**

El Pleno de la Corporación, en sesión del día 25 DE FEBRERO DE 2020, adoptó el acuerdo de adjudicar a HEMEN GARBIKETAK S.L.U. el contrato de PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, por los precios incluidos en el contrato y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

La duración del presente contrato era de UN AÑO, a contar desde el 25 de marzo de 2020, terminando, por tanto, su vigencia el 24 de marzo de 2021. En cuanto a la prórroga del mismo se estará a los dispuesto en el Pliego de Condiciones Económico-Administrativas.

Con fecha 23 de febrero de 2021 el Pleno de la corporación prorrogó por un periodo de UN AÑO el contrato adjudicado a HEMEN GARBIKETAK S.L.U. (1º Prórroga)

Con fecha 22 de febrero de 2022, el Pleno de la corporación prorrogó por un periodo más de otro AÑO dicho contrato (2ª prórroga).

Con fecha 22 de noviembre de 2022, el Pleno de la corporación prorrogó por un periodo más de otro AÑO dicho contrato (3ª prórroga).

Con fecha 28 de marzo de 2023, el Pleno de la corporación aprobó Modificar en los términos propuestos el contrato adjudicado el 25 de febrero de 2020 a la empresa HEMEN GARBIKETAK para la PRESTACIÓN DEL SERVICIO PÚBLICO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS MUNICIPALES, con un coste adicional anual de 31.612,58 euros (IVA incluido) respecto a los 167.043,65 euros (IVA incluido) inicialmente previstos, lo que supone un incremento del 18,92%.

De acuerdo con la claúsula 3 del pliego de cláusulas administrativas particulares, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el art. 29 de la Ley de Contratos del Sector Público, el plazo de duración del presente contrato será de 1 AÑO a contar desde el 25 de marzo de 2020 y podrá ser prorrogado por otros 4 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de CINCO AÑOS. Las prórrogas serán anuales y deberán ser acordadas expresamente por el órgano de contratación. Serán obligatorias para el empresario, siempre que su preaviso se produzca con dos meses de

antelación a la finalización del plazo de duración del contrato y no concurra la circunstancia prevista en el último párrafo del apartado 2 del art. 29 de le LCSP2017.

Ahora con fecha 11 de enero de 2022, D. José Antonio Ponferrada en nombre y representación de HEMEN GARBIKETAK S.L.U., presenta un escrito en el que solicita que se acuerde una prórroga por un periodo de 1 AÑO del contrato de los Servicios Generales de Limpieza del municipio de Eskoriatza a partir del 24 de marzo de 2022.

Analizada la solicitud, se ha considerado conveniente la prórroga del contrato por el plazo mencionado.

Estando el Ayuntamiento de acuerdo con el servicio, se considera adecuado prorrogar el contrato UN AÑO más.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Económico Sostenible, con el voto favorable de los 7 concejales de EHBILDU y la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Prorrogar por periodo de UN AÑO (4ª prórroga), el contrato adjudicado a HEMEN GARBIKETAK S.L.U para la prestación del SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL de acuerdo con lo establecido en la cláusula tercera del pliego.

**8.- CRITERIOS LINGÜÍSTICOS PARA EL FUNCIONAMIENTO DE LOS ÓRGANOS COLEGIADOS Y DE LOS GRUPOS DE TRABAJO DEL AYUNTAMIENTO EN LA LEGISLATURA 2023-2027**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera, Educación y Juventud y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar los criterios lingüísticos para el funcionamiento de los órganos colegiados y de los grupos de trabajo del Ayuntamiento de Eskoriatza en la legislatura 2023-2027.

**9.- RUEGOS Y PREGUNTAS**.

No se producen.

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:07 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**